



IKAZTEGIETAKO UDALA  
GIPUZKOA

## 2014KO URTARRILAREN 29KO OHIKO UDALBATZA

**NOIZ:** 2014ko urtarrilaren 29an, gaueko 21:30etan

**NON:** Ikaztegieta Udaletxeko Areto Nagusian

**BERTARATUAK:** Alkatea: Ainara Mendizabal Larrea (BILDU)

Zinegotziak:

Aitor Rementaria Aierbe (BILDU)

Igor Maiz Etxarri (BILDU)

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Sofia Bereziartu Albisua (EAJ-PNV)

Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

### **EZ ETORRIAK:**

Iker Otamendi Ibarguren (BILDU)

### **AZTERGAIAK:**

- 1.- 2013ko abenduaren 18ko udalbatzako aktaren onarpena.
- 2.- Alkateak emandako ebazpenen kontu ematea.
- 3.-Ikaztegieta Udalaren V. Plangintzarako (2013-2017) Euskareren Erabilera Normalizatzeko Plana behin betikoz onartzea
- 4.- Eskari galderak.
- 5.- Berri emateak

### **ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:**

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.



IKAZTEGIETAKO UDALA  
GIPUZKOA

## 2014KO URTARRILAREN 29KO OHIKO UDALBATZA

### 1.- 2013KO ABENDUAREN 18KO UDALBATZAKO AKTAREN ONARPENA

Alkateak galdetzen du ea korporazioko kideren batek baduen 2013ko abenduaren 18ko aktaren onarpenean inolako oharrik aurkezteko asmorik.

Bertaratutako zinegotziek EAJ/PNV alderdiaren abstentzioarekin, honako ERABAKIA hartzen dute:

**BAKARRA:** 2013ko abenduaren 18ko udalbatzako akta onartzea.

### 2.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN KONTU EMATEA.

Gaurko honetan 2013/139etik 2014/13ainoko ebazpenak irakurtzen dira.

*Mahai gainean geratu da Zero Zaborra elkarteak 2012ko datarekin aurkezturiko 236€ko faktura argitu arte.*

### 3.- IKAZTEGIETAKO UDALAREN V. PLANGINTZALDIRAKO (2013-17) EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Kontua da, 2013 urtea amaitu aurretik Ikaztegieta Udalak V. Plangintzarako (2013-2017) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu behar duela. Erabilera plana onartzeko, Jaurlaritzaren kultura saileko aldeko txostena behar da. Dagoeneko aldeko txostena daukagunez, planak behin betiko onarpena izan dezan ekarri dugu Udalbatzara.



IKAZTEGIETAKO UDALA  
GIPUZKOA

## 2014KO URTARRILAREN 29KO OHIKO UDALBATZA

Beraz Ikaztegietakoko Udalaren V. Plangintzarako (2013-2017) Euskaren Erabilera Normalizatzeko Planaren azalpena egin ostean bozkatu egin da eta bertaratutako zinegotziek aho batez Udalbatzan honako hau

### **ERABAKI DU**

**LEHENA:** Ikaztegietakoko Udalaren V. Plangintzarako (2013-2017) Euskareren Erabilera Normalizatzeko Plana behin betikoz onartzea.

**BIGARRENA:** Aipaturiko plana Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera igortzea.

### 4.- ESKARI GALDERAK.

Ez dago eskari galderarik.

### 5.- BERRI EMATEA

Ez dago berri ematerik.

Besterik ezean, gaueko 22:30 direnean, bilkura honetarako aurreikusitako gai zerrendako gaia aztertu denez, Alkateak udalbatzari amaiera eman dio, eta nik horrela ziurtatzen dut.

Oniritzia  
ALKATEA.-

Idazkaria,